

## BITARTEKARIAK:

Gure **harremana bezeroekin** automatizatua izango da ,hau da, bezeroari arreta zuzena emango diegu prozesu automatizatu batean oinarrituta, normalean tresna informatikoak erabiliz. Gure kasuan , Interneteko web orrialdea izango da gure tresna informatikoak. Web orrialdearen bidez, bezeroak gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Kexak jartzeko, gure berrietaz ohartzeko, baita zer hobetu dezakegun jarri dezakete. Baina ez hori bakarrik, enpresa eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzeko balioko du.

- **Denda ekologikoak** izango dira gure funtsezko elkarreak, denda ekologikoak gure produktuak salduko dituzte. **Bizkaian** egongo garenez, (Ekoizan, Itxaur etxe, Amabio ekodenda, Sania, Kresala, Querido Planeta, Veritas, etc). Denda hauekin eta Bizkaian dauden denda gehiago izango dira gure hornitzaileak.

Azkenik, **mugikorra** bidezko salmentak ere erabiliko ditugu, hau da, etxez etxeko salmenta ahalbidetuko dugu.

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

**AKORDIOA:** Gure lehen akordioak 2 hilabetekoak izango dira, bezeroak baserriarekin eroso badago eta gurekin lan egiten jarraitu nahi badu, akordio hauek luzatuko daitezke.

Gainera, gure erosle leialei bi motatako **DESKONTUAK** eskainiko dizkiegu, beste marketin era moduan:

- **Generikoak:** Hamar erosketa egiterakoan, hamar euro baino gorakoak jakina, hurrengo erosketan %10ko deskontua izan dezakezu. Adibidez, hamar euroko erosketa egiten duenak, deskontua ezarrita, erositako prezio guztia euro bat murriztuko da, bederatzi euroko prezio totala ordainduz.
- **Partikularrak:** Deskontuaren baldintzak banaka negoziatzen dira bezero jakin batekin. Ez zaizkie modu orokorrean aplikatzen bezero guztiei. Adibidez: gure enpresan geroz eta denbora gehiago egonez, deskontu gehiago izango dituzte, eta haien erosketaren arabera deskontuak handiagoak edo txikiagoak izango dira. **Txartel pertsonalizatuak** egongo dira ere bai. Txartel hauekin deskontuak izango dituzte eta hauek erosketa gehiago egiterakoan, deskontu gehiago izango dituzte...etab

